

EMAN Programaren protokoloan egindako aldaketak

(Hegazi Habiagileak Monitorizatzeko Eratzunketa-Guneak)

2022ko maiatza

Aranzadiko Eratzuntze Bulegoa
Aranzadi Zientzia Elkartea

JUSTIFIKAZIOA

Datuen hainbat analisi egin ostean eta Espainiako hegoalde zein ekialdeko hainbat gune gehitu eta gero, guneen protokoloan zenbait aldaketa egitea erabaki da. Aldaketek:

- 1) Orain arte jasotako datu serieei ez diete eragiten eta beraz, analisi eta emaitzetan ez dute eraginik izanen.
- 2) Malgutasun handiagoa eta irizpide fenologiko batzuk aplikatzea baimentzen dute, oro har, gune berrien parte-hartzea eta analisi eta emaitzen kalitatea emendatuz.

1.- 7. LAGINKETA (ABUZTUKO LEHENA) EZABATZEN DA.

2022tik aurrera, **7. laginketa (abuztuko lehena) ezabatzen da**. Hala nahi izanez gero, laginketa hau egiten jarrai dezakezue baina analisisetan ez da kontutan hartuko.

Arrazoa: abuztuan hasita, migratzaile transahariar jario garrantzitsua gertatzen da eta gainera, laginketa hau kenduta analisisien emaitzetan aldaketa oso txikia dela ikusi dugu. Honenbestez, eta laginketa-aldiko lana gutxituz, laginketa hau baztertu dezakegu.

2.- 4 LAGINKETA EGUNEKO GUNEEN AUKERA.

Protokoloak 6 laginketa (maiatza eta uztaila artean hamabostaldiroko laginketa bat) egin behar direla dioen arren, 4 laginketa bakarrik egingo dituzten guneak sor daitezke. Orokorrean, aukera hau salbuespenezkoa izanen da eta bestela programan parte hartuko ez luketen gunentzako bakarrik da aplikagarria. Mota honetako guneak altan ematen dituztenek, beren datuak ugaritasuna eta

helduen superbizipena estimatzeko bakarrik erabiliko direla kontutan hartu behar dute. Gazte-populazioa ekaina eta uztailean hobe harrapatzen da eta ondorioz, gune hauetan jasotako datuak ezingo dira produktibitatea eta gazteen superbizipen indizeak kalkulatzeko erabili.

3.- EREMU BIOGEOGRAFIKOAREN ARABERAKO LAGINKETA DATEN ALDAKETA.

Espainiako eremu epelagoetan laginketa gune berri kopuru handia gehitu da azken aldian eta honek, laginketa-aldia birplanteatzera behartu gaitu. Hortaz, **estai termomediterraneo eta mesomediterraneoan (Errioxa, Nafarroa, Aragoi eta Katalunia salbu) kokatzen diren guneek laginketa-aldia hilabete bat aurreratuko dute; hau da, laginketak apirileko lehen hamabostaldian hasiko dituzte eta ekaineko bigarren hamabostaldian bukatu.** Bi estai hauetan aurretik habian zeuden eta protokolo “zaharra” jarraitzen duten (maiatza eta uztaileko arteko laginketak) guneetan, nahi izanez gero eta guneak aktibo denbora gutxi badarama (5 urte baino gutxiago), protokolo berrira (apirila eta ekaina arteko laginketak) aldatzeko aukera esleitzen da. Dena den, protokolo “zaharrarekin” jarraitu dezakezue.



Mapa 7. Pisos bioclimáticos de las regiones Eurosiberiana y Mediterránea según Salvador Rivas Martínez.